

## Martin Ugalde edo etikaren indarra

Edorta Jimenez

*Pérgola*, 21. zk.: 74.

Egunkarietako orrietan agertu diren azken artikuluetan begiratu baino ez dago. Hegoaldeko auzoerdarara itzulgarria zein euskal obra den eta zein, hara azken hileotako mintzagai berria. Atxagari Espainako Literatur Sari Nazionala eman ziotenerik hona kanpo-eragileen menpe ikusten bait dute gure literaturaren etorkizuna baten batzuk. Hala bada, gazteleratik euskararako bidea egiten duen orok korrontaren aurka diharduela ematen du. Hara hor gaurkoan orrialdeotara ekarri dugun Martin Ugalde berea.

Halakoetan zabaltzen diren biografi-ohar laburrek diotena egia dela sinesturik, Venezuela aldean bilatu behar izan zuen aterbea Ugaldek gerra ostean. "Hiltzaileak" izeneko liburua argitaratzeak ekarri ei zion erbesteratu beharra. Liburu hura, berrargitaraturik dagoena, etikaren indarrari amore emanik sortu zen, sasoa lirikarako oraingoa baino gordinagoa zenean, hain zuzen.

Gura dudan hariari eutsita, bada, etikak eragina izan du Ugalderen lanean, beste ezerk izan badu ere. Oraingoa ere indar berori igarri uste izan dut "Bihotza golkoan" izeneko liburuan. Etikak, gainera, bazterreko edo marginalak direnei, gizarte honetako hegialdeetan bizi direnei buruzkoekiko gogoetan sartugura ekarri dio Ugalderi.

Aspaldiko kostumbrismoak –ohizalekeriak–, pertsonaia jatorren prototipoak ezarri bazizkigun –etxeoandrea, langilea, agura xelebrea-aspaldion ia so osorik desagertu dire gure oraintsuko literaturgileen ardura-multzoetatik. Marginala deritzo punkyari, yonkiari, etxe okupatzaileari, gazte ezmakurtuari (intsumisoari?) Horretara, benetan bazterrean geratu direnak gainerako behartsuak dira, hots, langile arruntak –egon dagozenak, postkeria guztien gaineratik eta azpitik–, lanegun bikoitza egiten duten emakumeak, eritetxeetako atso-agureak eta beste. Hala da ze, jatorkeriak desitxuratu zizkigun berberak isilduak "Bihotza golkoan" liburuan ekintzen eta gertaeren erdian jarri ditu halakoak. Protagonismoa itzuli die. Hortaz, arrisku itzela saihestu behar izan du, hots, bera ere jatorkeriaren mortuan jaustea. Lortu egin duela uste dut.dira egun. Hara hemen madarikaziorik borobilena, era bitako ukapena.

"Untxiak ehizatzea ez da bekatu, debekaldian ez bada" izena izanik liburua irekitzen duen ipuina, pasadizo xeble gisa hasten dena, epaiketa barregarria, alegia, salaketa bihurtzen da azkenean. Gerratean egindako izugarrikerien salaketa. Hala bada, guda zibilera itzuli da Ugalde, Nafarroa aldera, zehazkiago, gurean ere gutxienez jota zati bi izan zirela gogoraraztera. "Hiltzaileak" girokoa da ipuin hau.

Behi eta berriro agertuko zaigu guda Ugalderen orrialdeetan, ez bait zuen alferrik bizi izan. Berak, dena dela, "gerra formalaren garaia" dio "Hilaren berri freskoak" ipuinean, irakurleari beste gerrarik ere badagoela iradoki gura bezala. "Gerrarekin lehen kontaktua" da beste ipuin haren izena. Zortzirik hiru, bada, gaiari hestu lotuak.

Gainerakoetan ertz edo hegietan bizi direnak ageri zaizkigu, hala nola, salataria edo espetxeratu euskaldunaren amama erdalduna. "Ilunbe handiko lan beltzak" izeneko ipuinean salataria ageri zaigu, "gerra ez-formalaren garaia bizi dugulako adibidetzat edo.

Alde bi ei ditugula gure baitan, burmuinean, mugaldean alde bi dagozen era beretsuan. Bietan bizi izatera behartuta dagoena salatari etoi, espia, halakoren bat bilakatzen da.

Moral-arazoez arduratu diote Ugalderi, bai. "Giltza" izeneko ipuinean, esate baterako, ustegabeko gertaeraz osaturiko halako kate batek zalantzan ipintzen ditu etikaren mugak non ote diren, non ez. Era berean, auzitan jartzeko modukoa da normala/zorua dikotomia. Aintzat ikuspuntua, denok gara zoroak. Edo ez dago zororik, hala gurago bada. "Arkume laurden baten prezioa" izenekoan "burutik eginda" dagoen neska dakarkigu, neska horri iseka dabilkiona bera dela zoroa pentsarazteko moduan ekarri ere. Areago, zorotzat hartu izaten da arrotza sarritan, beraren keinu, egoera, janzkera, usaina eta halakoak arrotz egiten zaizkiolako bertakoari. "Izua" izenekoan Ugalde bera izan den bezain erbesteratua den emakumeari buruzko pasadizo labur bat baino ez zaigu kontatzen. Nahikoa da hori "atzerri, otserri" esakunearen azpian datzana entelegatzen hasteko.

Amaitzeko, liburuaren buruan ipini duen ipuina, liburuari titulua ekarri diona, alegia, esan dugun guztiaren adibiderik argientzat jo daiteke. Bertsolariek egin izaten duten moduan, azkenerako utzi bait du Ugaldek hoberena, literaturtasunaren aldetik ez bada ere, mezuari dagokionez berori izanik Ugalderen etikaren indarra erakusten duen ipuinik egokiena.